

Informazio Zirkularra 04/2023

Hernani, 2023ko apirilak 20

2022KO ERRENTA ETA ONDAREA AITORTZEKO KANPAINA

Apirilaren 3an hasi zen Gipuzkoan 2022ko Errenta eta Ondarearen kanpaina, eta 2023ko ekainaren 30ean amaituko da.

Hona hemen kanpainaren datarik garrantzitsuenak:

- Errentaren autolikidazio-proposamenak 2023/04/03 eta 2023/06/30 bitartean onartu ahal izango dira.
- Internet errenta eta ondare modalitaterako epea 2023/04/12tik 2023/06/30era bitartekoa da.
- Errenta mekanizatuaren modalitaterako epea 2023/04/17tik 2023/06/30era bitartekoa da.
- Errenta mekanizatuaren modalitaterako hitzorduak 2023/04/13tik 2023/06/8ra bitartean erreserbatu ahal izango dira

Proposamenak berrikusteko edo deklarazioak egiteko, deitu 943331267 telefonora edo brintza@brintza.com posta elektronikora idatzi.

FISKALTZA - HIDROKARBURUEN GAINEKO ZERGA: GASOLIO PROFESIONALA

154/2023 Foru Agindua argitaratu da, gasolio profesionala kontsumitzeagatik hidrokarburoen gaineko zerga zati batean itzultzeko prozedura ezartzen duena eta martxoaren 25eko 274/2010 Foru Agindua aldatzen duena. Horren bidez, gasolioa erosteagatik nekazaritzan eta abeltzaintzan jasandako hidrokarburoen gaineko zerga itzultzeko prozedura ezartzen da.

Gogorarazten dizuegu Brintzako Departamentu Juridikoak kalitatezko zerbitzua eskain diezagukeela diru-kopuruen erreklamazioetan, ordaindu gabekoetan, aholkularitza eta salerosketa- eta errentamendu-kontratuen idazketan, herentzien izapideetan eta testamentuen, erretiroen eta ezgaiketen azterketa eta aholkularitza pertsonalean, etab.